

# *Jardunaldia*

## *Osasun arloko langileen egitekoa Genero Indarkeriaren aurka: Erronkak eta aukerak*

Vitoria-Gasteiz, 2011ko martxoaren 2a



Genero-indarkeriaren kontrako osasun-profesionalak  
Profesionales de la Salud contra la Violencia de Género



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONSUMO  
SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO

## Genero-indarkeria, osasun publikoaren arazo

Osasun eta Kontsumo Sailak, Osakidetzarekin batera, ondoko jardunaldia antolatu du: “Osasun arloko langileen egitekoa genero indarkeriaren aurka: Erronkak eta aukerak”. Jardunaldiaren helburua da, batetik, osasun-langileak sentibilizatzea genero indarkeriak emakumeengan daukan eraginaren inguruan, eta bestetik, kontzientzia har dezaten garrantzizkoa dela adi egotea genero indarkeriaren arrisku egoerak, arrastoak edo sintomak daudenean eta halakoetan zer jokaera hartu behar duten ezagutzea.

Jardunaldian aurkeztu da **ZAINDU** Genero-indarkeriaren kontrako osasun-profesionalak.



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO



Genero-indarkeriaren kontrako osasun-profesionalak  
Profesionales de la Salud contra la Violencia de Género

## Emakumeen kontrako indarkeriaren definizioa

Nazio Batuen Erakundeak (NBE) “**emakumeen kontrako indarkeria**” dela onartu du emakumeari kalte edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa eragiten dion indarkeria-ekintza oro, bai eta ekintza horiek jasango dituztela mehatxu egitea, derrigortzea edo askatasun-gabetzea ere, bizitza publikoan zein pribatuan izan.

*(NBE: Emakumeen aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Adierazpena. Viena 1993)*



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SALA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO

## Indarkeria-motak

**FISIKOA:** atximurkadak, bultzadak, belarrondokoak, ostikadak... Abortuak, kanpo-eta barne-lesioak eta heriotza eragin ditzakete.

**PSIKOLOGIKOA:** oihuak, apalkuntzak, neurriz gaineko kritikak jendaurrean, hitz itsusiak, irainak, mehatxuak, erru-leporatzeak, gizartetik bakartzea.

**SEXUALA:** sexu-harreman behartuak, abusua, bortxaketa, ezkon-bortxaketa barne.

**EKONOMIKOA:** diru-sarrerak erabat kontrolatuta izatea, emakumeak ondasun komunetan parte hartzerik ez izatea edo parte hartze mugatua edukitzea, elikadura-pentsioak ez ordaintzea...

## Nori eragiten dio?

### EMAKUMEEI

Adin guztietakoei

Gizarte-klase guztietakoei

Kultura-maila guztietakoei

Emakume etorkinak eta minusbaliatuak dira bereziki babesgabeenak.

## EAEko osasun-sisteman detektatu eta artatutako genero-indarkeriaren kasuak

2009an, Euskal Autonomia Erkidegoko ospitaleetan tratu txarren 728 kasu, eta susmagarriak ziren beste 52 kasu detektatu ziren.

Lehen mailako arreta zerbitzuan, tratu txarren 227 kasu detektatu ziren, horietatik 111 kasu 30-50 urteko adin taldeari dagokio.

Tratu txarrak pairatzen dituzten emakumeen %90ek osasun-sistemara jotzen dute, eta emakume horiek, gehienetan, ez dute berehala adierazten tratu txarren egoerak eragindako benetako minak. Tratu txarren egoeretatik sortutako egonezinak (askotariko nahasketa fisikoak, psikologikoa edo psikiatrikoa) lehen mailako arreta zerbitzuan edo urgentzia zerbitzuan artatzen dira. Ondorioz, osasun eremua da biktimarekin zuzen-zuzeneko eta berehalako harreman duena. Horregatik, osasun-langilearen jarduera funtsezkoa da egoera garaiz antzemateko zein jarraipena egiteko eta laguntza emateko prozesuan.

Jarduera honen testuinguruan, Osasun eta Kontsumo Sailak, Osakidetzarekin batera, abian jarri du **ZAINDU** Programa, **Genero-indarkeriaren kontrako osasun-profesionalak**.



**Osakidetza**



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO**

## ¿Zer da ZAINDU Programa?

**ZAINDU** Programa honetan datza: osasun-langileriari prestakuntza ematea, kontsulta egiten ari direla tratatu txarren egoera baten adierazgarri diren gorputzeko ondoezak zein izan daitezkeen konturatzeko eta interpretatzeko.

Adierazle batzuen bidez eta susmo- edo arrisku-elkarrizketa klinikoaren bidez, osasun arloko profesionalek emakumearen kontrako biolentzia egoera bat detektatu ahal izango dute, eta kasuak dituen ezaugarrien arabera jardura jarriko dute abian.

Informazio guztia gida batean egongo da eskura. Gida gerentziei eta mediku-zerbitzuen arduradunei emango zaie ondoko tokietan banatu ditzaten: lehen arretako kontsultetan, EAG, osasun mentala, pediatria, obstetrizia eta ginekologia, traumatologia eta urgentziak.



# EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA

---

## HITZ EGIN DEZAGUN

Osasun-profesionalok zure ondoan gauzkazu hitz egiteko, entzuteko, ulertzeko, laguntzeko. Tratu txarren biktima bazara, hitz egin gurekin gertazten zaizunari buruz, beldurrik gabe, konfiantza osoz.

**Hitz egingo dugu?**

Tratu txarren bat jasaten ari diren emakumeek era horretako mezuak ikusiko dituzte mediku eta erizain kontsultetan eta horrela jakingo dute kontsulta ere biolentziari aurre egiteko arreta toki bat dela.



## ZAINDU Programaren garapena

### Kontsultan ager daitezken susmo-adierazleak

Osasun-langileari aukera emango dio kontsultaren bidez interpretatzeko zein diren mina eragiten duten benetako arrazoiak. Eta emakumeak daukan jarreraren arabera gai izango da kalte fisikoen ezaugarriak zehazteko (baldin badaude); eta bikoteak daukan jarreraren arabera tratatu txarren susmorik dagoen.

#### ***Emakumearen jarreraren arabekoak***

- Beldurtuta, iheskor, deseroso, urduri...
- Triste, interesa galdua, ilusioa galdua...
- Lotsatuta, ez du aurpegira begiratzen...
- Ez du bere burua zaintzen.





- Janzkerak lesioak ezkutatu nahia adieraz dezake.
- Antsietate-egoera, larritasuna edo suminkortasuna.
- Erruduntasun-sentimendua.
- Autoestimu gutxi.
- Lesioak justifikatzen ditu edo garrantzia kentzen die.
- Bikotea aurrean badago: beldurrez erantzuten die galderei, haren onarpena behar du uneoro...

### ***Lesioen ezaugarrien araberakoak***

- Hematomak edo kontusioak ditu gorputzeko atal susmagarrietan (aurpegian, buruan, besoen edo izterren barnealdeetan...).
- Tinpanoa hautsita du (ohiko lesioa).
- Lesioak genitaletan.
- Lesioak artatzeko eskaera atzeratu egin du.
- Kongruentziarik ez dago lesio-motaren eta nola gertatu den adierazteko emandako azalpenaren artean.
- Defentsa-lesioak (besaurrearen barnealdean) ageri ditu.



- Sendatze-faseetan lesioak jasan ditu = denbora askoan jasandako indarkeria.
- Haurdunaldian, lesioak genitaletan, sabelaldean eta bularretan.

### ***Bikotearen jarreraren araberakoak***

- Aurrean egotea eskatzen du bisitak iraungo duen denboran.
- Emakumearenganako neurritz gaineko kezka edo ardura erakusten du.
- Oso kontrolatzaile ageri da, beti berak erantzuten du, edo, bestela, oso axologabe ageri da, mespretxuzko jarrera du edo gertaerak hutsal bihurtzen saiatzen da.
- Zenbaitetan emakumearekiko edo profesionallekiko oso haserre edo haien kontra ageri da.

Adierazleak aztertu ondoren baldin eta susmorik edo arriskurik badago, osasun-langileak elkarrizketa kliniko bat egingo dio, emakumearen datu gehiago ezagutzeko eta interpretatu ahal izateko biolentzia motaren bat pairatzen ari den edo ez.

### **Elkarrizketa klinikoa, susmo edo arriskuen aurrean.**

Elkarrizketan zenbait jarrera hartuko dira kontuan konfiantza errazteko eta konfidentzialtasuna ziurtatzeko.

**Emakumearekin bakarrik bildu.  
Patxadaz elkarrizketatu, lasai, presarik gabe.  
Begiratu jarrerei eta egoera emozionalari (hitzezko lengoaiari eta ez hitzezkoari erreparatuta).  
Erraztu sentimenduak adieraztea.  
Zuzenean heldu indarkeria gaiari.  
Sinetsi emakumeak esaten duena.  
Azaldu interesa eta errespetua.  
Izan enpatia.**

## *Elkarrizketa errazten duten galderak*

- ¿Zer moduz zuen etxean?
- Baduzu arazorik zure bikotekidearekin edo seme-alabekin?
- Zer harreman-mota duzu zure bikotekidearekin?. Nola konpontzen dituzue zuen arteko desadostasunak?
- Etxean nola tratatzen zaituztela uste duzu?
- Sentitu duzu inoiz ez zaituztela ondo tratatzen?
- Iraindu, mespretxatu, apaldu zaituzte edo erasorik jasan izan duzu inoiz?
- Behartu edo eraso zaituzte fisikoki edo sexualki?
- Nola tratatzen ditu zure bikotekideak zure seme-alabak?
- Seguru sentitzen zara?. Beldurrik sentitu duzu?
- Irteerak kontrolatzen dizkizu bikotekideak?
- Kontrolatzen dizu dirua?
- Mehatxatu zaitu inoiz?. Badu armarik etxean?
- Inork badu zure egoeraren berri?
- Senideren bati, lagunaren bati konta diezaiokezula uste duzu?
- Lagunduko dizula uste duzu?
- Zeure burua arriskuan ikusten baduzu, baduzu nortaz fidatu?. Baduzu non babestu?



Jarduerak programaren faseak betetzen ditu eta elkarrizketaren emaitzen eta egindako balorazioaren baitan egongo da.

## Jokabidea

- **Indarkeria jasan dezakeela susmoa hartzen zaion emakumea, baina, indarkeria jasaten duenik onartzen ez duena, eta bere bizitza arriskuan jartzeko adinakoa ez dena:** historia klinikoan jaso, hitzordua eman segimendua egiteko, eta gizarte zerbitzuetara jo haren berri izatera.
- **Indarkeria jasan dezakeela susmoa hartzen zaion emakumea, indarkeria jasaten duela onartzen duena, baina, bere bizitza arriskuan jartzeko adinakoa ez dena, eta salaketarik jarri nahi ez duena:** historia klinikoan erregistratu, segimendurako hitzordua eman, lesio-partea egin eta gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri.
- **Indarkeria jasan dezakeela susmoa hartzen zaion emakumea, indarkeria jasan duela onartzen duena, bere segurtasuna arriskuan jartzeko adinakoa dena, eta salaketarik jarri nahi ez duena:** historia klinikoan erregistratu, lesioen parte egin, indarkeriaren kontrako epaitegira bidali eta segimendua egiteko hitzordua eman.
- **Indarkeria-seinaleak dituen emakumea, indarkeria jasaten duela onartzen duena, bere segurtasuna arriskuan jartzeko adinakoa dena, eta salaketa jarri nahi duena:** historia klinikoan erregistratu, lesioen parte egin, indarkeriaren kontrako epaitegira edo guardiakora, edo Ertzaintzara bideratu, gizarte zerbitzuekin harremanetan jarri, eta segimendua egiteko hitzordua eman.



Osakidetza



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

OSASUN ETA KONTSUMO  
SAILA  
DEPARTAMENTO DE SANIDAD  
Y CONSUMO

## Ondorioak

Arazo honen aurrean, Osasun eta Kontsumo Sailak eta Osakidetzak urrats bat gehiago eman dute osasun sisteman abian jarri diren jardueretan eta sakondu egiten dute arreta integralagoa eskaintzeko konpromisoan bai maila sanitarioan, bai juridiko eta sozialean.

**ZAINDU**k osasun arloko profesionalak prestatu, kontzientziatu eta sentsibilizatu nahi ditu tratu txarrak garaiz detektatzeko izan dezaketen alerta lanak betetzeko, tratu txarra pairatzen duenari laguntza emateko, eta biktimak ahalik eta lasterren arreta integrala izan dezan eman beharreko urrats guztiak errazteko.

Biolentzia pairatzen duten pertsonak jakingo dute mediku edo erizain-kontsultak genero-indarkeriaren arretarako beste toki bat gehiago direla.

